

MOZIOA

Pasa den Urriaren 7ko gauean, Gaztetxeko kideek, Beltzez jantzita eta aurpegia tapatua zutelarik, Azpeitiako batzokian eskegita zegoen Palestinako bandera kendu zuten.

Hori erreibindikatzeko gaztetxeko sare sozialetan bideo bat zabaldu zuten, ondorengo mezuarekin: “EAJ-PNV bakearen eta palestinaren aldeko adierazpen faltsuek ez dute ezertarako balio, zuek baitzarete konplize zuzenak. Zuek orain Batzokiko balkoian Palestinako bandera jartzea interes partidistetarako eta zuen aurpegi zuriketarekin jarraitzeko erabiliko duzue. Ez dugu zuen eta beste alderdien amua irentsiko!”

Azpeitiko Batzokitik Palestinako bandera gauez, eta Gaztetxeak hala erabaki duelako, kendu izana beste eraso bat gehiago da, erabat gaitzesten duguna, eta talde horren ezjakintasun politiko eta intolerantzia autoritario eta sektarioaren adierazpide bat. Pluraltasunaren eta adierazpen-askatasunaren aurkako atentatu bat gehiago.

Horrelako ekintzak gertuago daude totalitarismotik eta faxismotik demokraziatik eta askatasunetik baino. Tamalgarria da erasoaren aldeko apustua egiten dutenak egotea gure herrian, beti ezkutuan, hitza eta elkarrizketa erabili beharrean.

Gaztetxeak bere gain hartu du polizia, epaile eta exekutore zeregina, Palestinako herria Gazan jasaten ari den genozidioren aurka nor egon daitekeen eta nor ez erabakiz. Gaztetxeari gogora ekarri behar zaio zer-nolako kontraesana den, egiten dituen funtsik gabeko akusazioen harira, orain dela lau egunera arte beren webgunea Israelgo plataforma batean kokatua egotea.

Horregatik hurrengo Mozioa plazaratzen dugu Azpeitiako Udalbatzak onartu dezan:

- 1) Udalean ordezkaritza dugun alderdi politikook gaitzetsi egiten dugu Azpeitiako batzokiaren eta EAJ-PNVren aurkako eraso, alderdi politikoei eta hauen topalekuei erasoak ez bai dira demokratikoak .**
 - 2) Azpeitiako Udalak berretsi egiten du bizikidetzaren aldeko apustua, eta adierazten du hura hautsi nahi duten ekintza hauen aurrean ez duela atzerapausorik emango.**
 - 3) Azpeitiako Udalak guztion artean eraikitako eta bizikidetzan eta errespetuan oinarrituriko Azpeitiaren alde egingo du lan.**
-